

# ikAPPsi ingurumenagatik!

Zientzia proiektu herritar bat da, ibaia aintzira eta estuarioen ingurumen egoeraren azterketan parte hartzeko. HASTEKO, ERREGISTRATU ETA PROFILA SORTU BEHAR DUZU.



**Proiektu honek zientzialari profesionalen eta herritarren arteko interakzioari esker funtzionatzen du:**

- Ingurumen azterketa eta datu-bilketa, aplikaziora edo web-ari esker ([web](#))
- Parte hartzaile guztien datuekin sortzen diren mapetan sarbidea librea da.
- Foroaren bitartez beste erabiltzaileekin kontaktatu dezakezu.
- Gainera, aplikazioak dituen jokoekin lotutako materialekin ikasi ahal izango duzu eta dibulgazio material berria sortu.

## ZELAN FUNTZIONATZEN DU?

Ez da beharrezkoa aditua izatea uraren kalitatea zein den kalkulatzeko. Aplikazioak galderak egingo dizkizu, eta ikusten duzunarekin antza handiena daukan erantzuna aukeratzeko joango zara. Gainera tokiaren argazkia erantsi ahal izango duzu. Horrela, adituak arduratuko dira ematen duzun informazioa balioztatzeaz.

## ESKOLA ETA TALDEENTZAT

Aplikazio honek eskoletako edo lagun taldeetako ikastaroetarako talde profil bat sortzeko aukera du. Hori erregistratzeko “grupo/escuela” profila hautatu behar da.

